

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Etxebizitza sozialak
egiteko hitzarmena /8**

GIZARTEA

**Jostailu erakusketa eta
literatura gida /9**

LEINTZ GATZAGA

**Periko
Orobengoa /10**



**Bainuetxetik
Industrialdera**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 15
ITURRALDE. Mitarte, 18. 943 79 27 22

DOMEKA, 15
ITURRALDE. Mitarte, 18. 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Aretxagazeta	943 79 86 21
Fax	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte-Laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide Elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kiroletxea	943 71 26 28
Kultur-Etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi E.E	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko M.E	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun zentroa	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi Geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze-Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:30

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak: 08:00

BASERRI AUZOETAN: ARIENTZA
Domekak: 12:30

GALARTZA
Domekak: 11:30

OHARRAK

MACREA GAZTETXEAN
MacRea umorista irlandarra antzerki ekitaldia egingo du gaur, abenduak 14, gaueko 22:00etan Gaztetxean.

MUS TXAPELKETA
Mus txapelketa egingo da gaur hilak 14, gaueko 22:30ean Valdezate tabernan.

AKORDEOI ORKESTRAREN EMANALDIA
Aretxabaleto Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du abenduaren 15ean, arratsaldeko 20:00etan, Parrokian.

MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUAK
Trikitixa, saxo, zeharkako txirula, klarinete, perkusio, tronpeteta, piano, biolin, akordeoi eta txistuarekin kontzertuak egingo dituzte Musika eskolako ikasleek. Ekitaldiak abenduaren 17tik 21era izango dira arratsaldeko 18:00etan, Leizarra Musika eskolan

BAKE KONFERENTZIAREN GARAPEN FASEAREN GAINEKO HITZALDIA
Elkarri-k bake konferentziaren garapen fasearen aurkezpen hitzaldia egingo du abenduaren 19an, arratsaldeko 19:30ean Murruxikoko egoitza.

LORAMENDIRENAGENDA

BEÑAT ACHIAI Y ETIA JOEL MERAH KONTZERTUAN
Beñat Achiay eta Joel Merah iparraldeko bikote musikagileak kontzertua eskainiko du gaur, abenduak 14, gaueko 22:30ean Kurtzebarri eskolako areto nagusian. Hainbat musika tresna aldean dituztela, doinu arraro bezain politik eskainiko dituzte.

ORAINDELA...

Nazioarteko ziklo-kross proba ospetsua

Garai baten Konstituzioko zubi inguruan Nazioarteko ziklo-kross proba ospetsua egiten zuten Arbizelai ondoko zelaietan. Lehengoa 1967. urtean izan zen, eta azkena 1990ean. Europa osoko txirrindulariak etortzen ziren parte hartzera. Ondoko argazkikoa Renato Longo dugu.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Sukurutza"

Izua, ikara.
-Hilgo dabela amenazau dabe. Hori da sukurutza sartu dotsena.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Joxe Aranzadi
13an. Zorionak etxeko partetik.




ARETXABALETA
Anabel Aranzadi
13an. Zorionak, oraingotan etxeko partetik.



ARETXABALETA
Rosa Mari Gomara
13an. Zorionak Rosaren partetik.



ARETXABALETA
Aritz Fernandez
18an, 2 urte. Zorionak etxeko partetik.



ARETXABALETA
Martzelino Ugalde
22an. Zorionak eta unaskotarako! Aretxagazeta neskak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra!
Doan!
Udaletxe zaharrean gaude:
Durana, 11

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

- * ESTUDIOAK
- * EZKONTZAK
- * JAUNARTZEAK
- * ENMARKAZIOAK
- * DIGITAL LANAK
- * KAMARAK

Beti karretea edo albuma dohanik !!!

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Etorkizunik ez'

Liburu hau egunkari bat da, Carlota izeneko hamasei urteko neska baten egunkaria. Ikastetxe berri batera joan behar du herriz aldatu eta gero. Carlota, gainera, garai txarrak bizi ditu, gaixotasun bat dela medio burusoil dagoelako tratamendua egin bitartean.




ETORKIZUNIK EZ
Marilar Aleixandre
Elkarlanean
167 orrialde

Herriz aldatu diren egun berean Poch, Derribos Arias taldeko kantaria hil da gaixotasun batez ondorioz, eta Carlota pertsonaia hori hartuko du alegiazko lagun modura bere penak kontatzeko eta aholkua eskatzeko. Galizieraz idatzitako liburu honek Lazarillo saria irabaztu zuen 1999an.


JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIA EZPADA / Gabonetako erosketak egin dittuzu? Nun gustetan jatzu erostie?



JON ANDER MENDIETA
Langillie

ALBERTO ZILLAURREN
Langillie

JOKIN BENGOA
Langillie

INES GARCIA
Etxekoandrie

CARMEN ALVAREZ
Langillie

RAQUEL CALLEJA
Etxekoandrie

Ez, zerbait erositte daukou baiñe gehixena erosteko. Jatekue, okelie esate baterako, konfiantzazko harategixen erostie gustetan jat, oparixek, ostera, denda haundixetan.

Bai, gehixenak behintzet eginda dauzkat, nahiz eta ondiokan zeozer falta. Aurten erosketa gehixenak denda haundixetan egin dittut, bai janarixe dala, bai oparixek direla.

Ez ba, zeozer berezixe egin gure izen ezkeru aurrez erosten dou, baiñe normalien azkenengo orduen ibiltten gara. Denda haundixetan be erosten dou baiñe gurau betiko dendetan erostie.

Ez, ez dot ezer erosi, baiñe aurrez erostie gustetan jat azkenengo orduen takarraran ez ibiltteko. Okelie eta arraiñe gurau dot denda txikixetan erostie, konfiantzazkuetan.

Ez, ondiokan egin barik dauzkat. Ahal izen ezkeru aurrez erostie gustetan jat, baiñe aurten ikusiko dou... Supermerkau haundixetara fateko ohitturie dauket.

Ez, baiñe laister egingo dittut, aurrez egittie gustetan jat eta. Oparixek erosteko Gasteizera joateko ohitturie dauket, baiñe jatekue Mondragoeko azokan erosten dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUHAITZAK BOTA Zein burutan uler daiteke inolako arrazoi barik lorategiko lau zuhaitz moztu eta botatzea? Zeini egiten zioten kalte bi lizar eta bi izei gorrik? Askok uste baino lotura estuagoa dago natura eta gizakiaren artean. Hain zuzen, natura errespetatzen ez dakigulako sortu dira gaur egungo arazo asko eta asko. Bakea, bera ere, naturarenganako errespetutik hasten da. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4

Termitentzat tratamendua

Durana kaleko hainbat etxebizitzetan termiten kontrako tratamendua ematen ari dira.

ASTEAN BEHIN /5

Bainuetxeko Industrialdea

Bainuetxeko Industrialdea aurrera doa, eta hilabete pare batean bukatuta egotea espero da.

KIROLAK /7

Juan Carlos Fernandez

Juan Carlos Fernandez, Falapa, kotxe gidariak denboraldia bukatu berri du.

ASTEKODATUA

2

MILIOIKO AURREKONTUA DU NEGU KULTURALAK

Negu Kultureko egitaraua, Gabonak barne, ekitaldiz beteta dator. Bi milioi pasatzoko gastua egin du Udaleko Kultura sailak ekitaldi horiek guztiak antolatzeko.

BESTEKEESANA

“Konparazio txiki bat eginez, esango nuke, Euskal Herria Espainian izango dena kontsideratu

dezakegula Baltistan. Oso herrialde txikia da, Pakistan iparraldean kokatzen dena, mendiz inguratuta, eta kontuan izan behar dugu justu inguru horretan elkartzen direla bai Karakorun mendikatea, bai Pamir eta bai Himalaia. Beraien hizkuntza propioa daukate, baltiera, eta orokorrean oso jende xumea da, nekazaritzatik bizi dena, oso nekazaritza pobrea, baina bizitzeko duten baliabiderik garrantzitsuenetarikoa da. Gero, bestalde, hain justu gu lanean ari garen eskualde honetako jende asko eta asko, mendian bilatzen du bigarren baliabide garrantzitsuena, mendiko lanak.

ALBERTO IÑURRATEGI
EUSKADI GAZTEA/01-12-03

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Udazken aztoratua

Aztoratuta etorri zitzai-gun udazkena eta hala joango dela ematen du. Aztoratuta? A, barkatu. Niretako udazkena aztoratua izan da.

Nola igarri dudan?... Ba, udazken honek nire ohiturak apurtzea lortu duelako: telebitara, ohikoak ez diren orduetan jo dut, egunkariak erosteko ez dut hutsik egin, etxetik urrundu naizenean inoiz baino kezka eta behar gehiago sentitu dut bertan zein kanpoan gertatutakoaz berba egiteko.

...eta ze ondorio daukan aztoratuta egoteak? ...ba, gauza txikiak, ohikoak, egunerokoak... hitz baten esateko, pertsonaren dohainak joan jartzen dituztenak alde batera uztea, ihes egingo balidate bezala, eta ohikeria soilari jarraitzea, ez baitut adorarik hori alde batera uzteko.

...baina nola? Ni ohikeria zale? Inoiz ez dut nire burua horren aldekotzat jo eta.

...zelan irten kate honetatik? ...zer egin kate honetatik

ez jausteko? Sarritan pentsatzen dut “besteek” emango balute lehenengo pausoa gutxienez, majo erraztuko lidaketela neuri behintzat bidea.

...eta zergatik ez dut neuk erabakiko neroni dagokidana zain egon barik? ...akaso ez naiz gizarte honentzako?...zer-

“Baina oraingo gurdi ez egonkor honek itxaropena hartu du bide eta pertsonak, taketa”

baitetarako behar ote nau? ...eta nik zer emango nioke gaurko gizarteari? “Aieneak”, lehenagokoa behin eta berriz gogora ekarriz? Edo parean izan dudan jakiteaz baliatuz gizartearen eraldaketari rol aktiboa eskaini.

Gizarte honen gurdia atzetik joateak ez nau bete, eta etorkizuneko (dagoeneko) irudikatzen hasi eta lehenengo trabak ikusi: aniztasuna, ziurtasun eza, askatasuna, bestekin adostu beharra... Baina gurdi ez egonkor honek itxaropena hartu du bide eta pertsonak, taketa. Unibertsoan gizartearen eraldatzeko dohaina dugun bakarrak garela.

Merezi du saiatzea. Saiatu ko naiz.

Aretxagazeta

Durana, 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Gabon ikutua

Kaleek gabonetako itxura hartu dute. Argiak han eta hemen, polito jantzi dituzte arbolak, eta horrek herria alaitu egiten du. Beste berri batzuek ere poztu egin naute. Arrasateko akordeoi lehia- ketan fin ibili ziren herri- ritar batzuk. Zortziko taldean, **Edurne Akizu, Naiara Altube, Jon Ander Barbero, Ane Gonzalez, Asier Martinez de Agirre, Unai Mendikute, Nerea Zubillaga eta Nerea Zubizarreta**k urrezko domina lortu zuten. Bakarka ere fin ibili ziren: **Jon Ander Barbero** eta **Asier Martinez de Agirre** urrezkoa eskuratu zuten. **Unai Mendikute**ren lana ere aipatzekoa da, Gipuzkoako akordeoi txapelketan bigarren postua lortu baitzuen. Lehenengo aldiz parte hartu zuten **Oihane Zabala** eta **Aroa Fuenca-** **millan** ere urrezko dominaz etxeratu ziren. Zorionak guztiei eta jarraitu horrela lanean. Beste batzuek ahotsez alaituko dituzte bazterrak laster. Izan ere, datorren zapatuan Frantziako Tolosara joango dira Aretxabaleta Abesbatzakoak. Gabon kantak abestera doaz bertara. Bestetik, konturatuko zineten moduan, Olentzero ere heldu da herrira, eta honen ikatza jaso gura ez duenak, badaki zer egin. Beraz, formalak izan.

HIRIGINTZA/ Durana kaleko zenbaki bikoitidun atarteak dituen aldea zulatu dute produktu kimikoa sartzeko

Termiten aurkako tratamendua ematen ari dira Duranako etxebizitza gehienetan

MIRARI ALTUBE

Durana kaleko zenbaki bikoitia duten atarteetan termiten kontrako tratamendua ematen hasi dira. Oraingoz arazoa ez da larria, eta termiten aurkako neurriak garaiz hartzea erabaki dute bai Udalak, bai bizilagunek. Hala ere, bost urteko jarraipena egingo diete etxeei.

Udalak hartutako Garbi enpresak Duranako etxebizitza guztiak aztertu zituen urrian, eta jasotako emaitzen aurrean, zenbaki bikoitidun atarteetan termiten kontrako tratamendua ematea erabaki zuten.

LEKUKO GISA JOKATUKO DUTEN HODIAK Durana kalean goitik behera, 15 zentimetro inguruko tartean, egin


dituzten zuloetan produktu kimikoa sartzen ari dira. Termitak pasa ez daitezkeen hesia osatuko dute aipatutako zuloek. Bestalde, lekuko gisa jokatu duten hodiak ere jarriko dituzte. Hodi horietan, termiten kontrako pozoiz igurtzitako egurrak sartuko dituzte. Lekuko hauen zeregina bikoitza izango da, batetik termitarik dagoen edo ez jakinaraziko dute, eta bestetik, egonez gero, termitak berak, pozoidun egurra termiten bizilekura eroango du eta bertako guztiak ere akabatuko. Azken tratamendu horri bost urteko jarraipena egingo diote eta urtero berrituko dira lekukoak.

Udalak hartutako neurriek gain, bizilagunek ere hainbat ekintza egiteko asmoa daukate etxebizitzak barrutik begiratu eta konpontzeko ahaleginetan.



Zuloetan sartutako produktu kimikoak, hesia osatuko du termitak pasa ez daite-

TXUTXUMUTXUA



Kultura Etxera ere etorri da Olentzero

Gabonak gainean ditugu eta poliki-poliki dendetako erakuslehoak, lorategietako zuhaitzak eta kale bazterrak apaingarri eta argi dotorez bete zaizkigu. Olentzeroak ere han eta hemen ikus ditzakegu, aurten udaletxeko balkoira igotzeaz gain, Kultura Etxeko leihora ere hurbildu da. Herriarrak gustura dauka, herriko erdiguneaz gain, inguruetako kaleak ere polito apaindu dituztelako. Argi dago sarritan dirua baino gehiago irudimena behar dela. /M. A.

LABUR

Aretxabaletako Bihargintza SAK proiektua berria eroango du aurrera HUEZLekin

Udalak iaz sortu zuen Bihargintza enpresak, lan heziketaren gure proiektua egingo du Eskoriatzako Humanitate eta Heziketa Zientzien fakultatearekin lankidetzan. Nere Abad beka-dun ar- satearrak, herriko enpresa garrantzitsuenek dituzten behar- aztertuko ditu. Langileen heziketa maila ezagutu eta bakoitzaren eginbeharrari pausoz pauso egingo dio jarraipena Nerek.

Aretxabaletarrak bikain ibili dira Arrasateko Akordeoi Txapelketan

Aretxabaletako akordeoilari gazteek domina ugari ekarri dituzte Arrasateko. Zenbait txapelketatan hartu zuten parte bai taldean, bai bakarka. Taldean esaterako, urrezko domina lortu zuten Gipuzkoako Akordeoi Jaialdian, eta bakarka aritu zirenek ere urrezko eta zilarrezko dominak jaso zituzten. Unai Mendikutek, bigarren talde, 2. postua lortu zuen Gipuzkoako 22. Akordeoi Txapelketan.

Aretxabaletako Abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu Frantziako Tolosan

Aretxabaletako Abesbatzak Gabon kanten emanaldia eskainiko du Frantziako Tolosan zapatu honetan. Arratsaldeko 19:00etan izango da emanaldia, eta egunean bertan egingo dute joan-etorria. Instituto Cervantes delakoaren eskutik doaz Frantziara, eta otsailaren berriz bueltatuko dira aipatutako hirira gregorianoa abestera-



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 31 87

ARETXABALETA

HIRIGINTZA/ Lau enpresek izango dute egoitza Bainuetxeko Industrialdean: Lasak, Fagor Sistemasek, Legaiak eta Industrias de Embuticionek

Otsail ingururako bukatuko dituzte guztiz Bainuetxeko Industrialdeko lanak

MIRARI ALTUBE


Abenduaren 31rako bukatuta egotea gura zuten Bainuetxeko Industrialdea, baina zertxobait atzeratu egingo da. Lehenengo pabilioia, Lasarena, bukatuta dago, eta bigarrena bukatu ostean, ingurua txukundu beharra izango du Debagoieneko Industrialdeak.

Urtebete pasatu da Bainuetxeko Industrialdean lehenengo harria jarri zutenetik, eta aurrera doaz bertako lanak. Debagoieneko Industrialdeak abenduaren 31rako lan guztiak bukatzea gura bazituen ere, otsail inguruan izan beharko da inaugurazio ekitaldia.

LASA ETA BESTE HIRU ENPRESA

Bainuetxeko Industrialdeak 15.000 m² ditu lurrian, eraikigarriak, ordea, gehiago, 21.458, eta bi pabilioiz osatua dago. Lehenengo pabilioiak 9.800 m² eraikigarri ditu, eta Lasa enpresarena da. Debagoieneko Industrialdeak Lasari urbanizatutako lurra saldu zion, eta Lasa arduratu da bere eraikina egiteaz. Atzerapen handiz dabil gainera, irailerako Industrialde berriaren egotekoa baitzen. Dena dela, laster batean izango da bertan, lantegi berria makinenez hornitzen hasita dago eta.

Bigarren pabilioiak 11.600 m² ditu eraikigarriak eta Debagoieneko Industrialdearena da. Hiru enpresek izango dute egoitza ber-



Industrialdearen albotik Urkuluraino joango den bidegorria egingo dute

MIRARI ALTUBE

tan: gaur egun Basabe poligonan dauden Fagor Sistemas eta Legaiak, eta Eskoriatzako Industrias de Embutición enpresak.

Koldo Azkoitia, Debagoi-

ko Industrialdeko arduradunaren esanetan txiki geratu da Bainuetxeko Industrialdea, "Fagor Sistemasek eraikuntza handi-
goa gura zuen, baina ezin izan diz-

kiogu metro gehiago atera, ez dago nondik atera eta".

1.300 milioi inguruko aurrekontua izan du Industrialdeak. Horietatik 260 milioi, ingurua

txukuntzeko erabiliko dute. Industrialdeak egin beharreko bidegorri zatia esaterako, eginda dauka jadanik, eta uretz iturria ere berreskuratuko dute.

Bidegorria eta uretz iturria

Naturaren erdigunean egin dute Industrialdea, hainbat makal bota eta gero. Hala ere, natura errespetatu gura izan dute, ahal zuten kalte txikiena eginaz eta ingurua zainduz. Horrela bada, Bainuetxeko Industrialdetik Azatzako Iraban baserriraino doan bidegorria egingo dute. Industrialdeari dagokion tartean jadanik eginda dago, orain Udalarik dagokio bere zatia egitea. Proiektua Jose Mari Segovia hirigintza teknikariak egin du, eta dato-

rren urteko aurrekontuetan sartu da lanen gastua. Beraz itxaron egin behar oraingoraindik, aurrekontuak onartu eta martxan jarri artean.

Bainuetxean zegoen uretz iturria ere berreskuratuko egingo dute. Industrialde hasieran jarriko dute, eta lehengo itxura bera eman gura diote. Ura uneoro jausten edukiko du iturriak, eta soberan datorrena bertako errekatxora bideratuko dute. Lanak egunotan bukatuko dituzte.



Udalatx
InmobiliariA

Sail eta etxebizitzaren salmenta Eskoriatzan

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala, 27 behe-ekz.
ARRASATE

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

**AMETS
TABERNA**

Iparagirre, 4
Tel.: 943 79 01 29
ARETXABALETAK

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAK

ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

**ARETXABALETAK
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAK

JUAN CARLOS FERNANDEZ "FALAPA"/AUTO GIDARIA

"Mendiko Euskal Txapelketan hirugarren postuan bukatu dut"

MIRARI ALTUBE

Orain bi urte hartu zuen parte Juan Carlosek lehenengo aldiz automobil lasterketa batean. Orduan sentitu zuen zirrarak aurrera jarraitzea bultzatu zuen, eta aurten oso ondo ibili da Mendiko Euskal Txapelketan.

Nolatan sartu zinen automobil lasterketan munduan?

Orain bi urte lasterketa batean parte hartzeko aukera izan nuen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Haren ostean, lasterketetan parte hartzeko automobila erosi nuen. Lehenengo urtean ez nuen ezer handirik egin, baina bigarren urte honetan askoz hobeto ibili naiz.

Zenbat lasterketatan hartu duzu parte aurten?

Mendiko Euskal Txapelketan hartu dut parte, eta guztira zortzi lasterketa izan dira.

Zer moduz ibili zara?

Nahiko ondo, ni behintzat gustura nago, izan ere hiru aldiz bukatu dut lehenengo postuan, beste hiru aldiz hirugarrenean eta birritan bigarrean. Txapelketako sailkapen orokorrari dago-



JUAN CARLOS FERNANDEZ

kionez hirugarren postuan bukatu dut.

Zelako automobila daukazu?

XSporta, hori bai, lasterketetan parte hartzeko ondo gertatuta. Urte osoan ez du matxurarik izan, eta horri zor diot hain emaitza onak lortu izana.

Baduzu laguntzen dizun talderik?

Ez, neu naiz lan guztiak egiten dituen. Babesleak, bestalde, bai, hainbat ditut, izan ere nahiko kirol garestia da.

Etorkizunera begira, proiekturik baduzu?

Datorren urteko Euskal Txapelketan lehenengo postuan bukatzea nahiko nuke. Hemen inguruan Europa mailako lasterketaren bat egingo balitz ere parte hartzea gustatuko litzaidake, Jaizkibelera igoera behar bada...

Zelako maila egoten da lasterketatan?

Maila altua, ez da batere samurra lasterketak irabaztea, eta egia esateko ni neu ere harrituta nago hain ondo ibili naizelako.

PILOTA

Kirol Etxeak antolatutako esku pilota txapelketako lehenengo fasea bukatu da

Federatu bako pilotariei zuzenduta lau terdiaren barruan Kirol Etxeak antolatu zuen esku pilota txapelketa aurrera doa. 12 bikote ibili dira lehenengo fasean, eta onenak Xabin Arriola eta Xabier Sarasua aretxabaletarrak eta Iban Isasti eta Argider Isasti oñatiarrak izan dira. Zapatu honetan bigarren fasea hasiko da, eta final laurdenak jokatu dituzte 11:00etatik aurrera Iturrigorri.

FUTBOLA

Atxabalpen Aloña Mendiri irabazi ostean, aurreko postuetan jarraitzen du UDAk

Arrasateko Atxabalpe futbol zelaian jokatu behar izan zuen preferenteko taldeak oñatiarren kontra, baina ez zion zorte txarrekarri. Lehenengo zatian bikain ibili zen, eta 3 eta 0 aurreratzat lortu zuen. Bigarren zatian, bestalde, gaizki ibili zela esan behar da, hala ere emaitzari eustea lortu zuen. Jarraitzaileak ere bikain postuetan ziren, aretxabaletar ugari hurbildu baitzen Arrasatera.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Beti Ona-UDA

Preferentea.

Zapatua. 18:15. Olereta.

UDA-Cruces

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. (2)-Eibar

Gazteak.

Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

Bergara-Aretxab. (2)

Seniorrak.

Domeka. 13:00. Bergara.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 3 Aloña Mendi 1

Preferentea.

Balmaseda 0 UDA 1

Gazteen Euskal Liga.

UDA 1 Gazteak 1

Bigarren mailako erregionala.

A. Ondarroa 2 UDA 2

Bigarren mailako gazteak.

Eibartarrak 0 UDA 8

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 6 Eibartarrak 0

Urki 1 UDA (b) 3

Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 3 Hernani 22

Kadeteak.

Murumendi 22 Aretxab. 8

Gazteak.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

IMANOL ARRAZOLA OTXOA
Mediku-dentista
Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL
Mediku estomatologoa
Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

FLOREN ELORTONDO
Masajeak eta osteopatia
Basabe industrialdea, Pab D z/g
Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

LASAI MASAJEAK
Mirian Manteca masajista
Garezurreko steopatia:
estruturala eta funtzionala,
lotura muskularrak
Aurrez lekua eskatu:
943 77 04 34

ZAINDUZ OSASUN ETA
FITNESS ZENTRUA
Kirol eta osasun zerbitzuak:
banakako fitness programak, masajeak...
Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA:
Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa,
akupuntura, osteopatia.
Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

PSIKOPEDAGOGOAK:

LEBER KABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA
Hezkuntza arazoetan diagnostikoa
eta tratamendua
Basabe industrialdea, C3-3.
Tel: 943 79 56 98

PARAFARMAZIAK:

FARMA BIZI PARAFARMAZIA
Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria
Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

ESKORIATZA

FARMAZIA

BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE PAGALDAY
Homeopatia, dermofarmazia,
formula magistralak
Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA
Hortz klinika
Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.
Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS
Protesiko dentala: ortodontzia
Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

ERRETRATUZAHARRA

Gerra Zibileko oroigarria Aretxabaletan

Espainiako bandera aldean zutela pasatu ziren Karlistak Aretxabaletatik. Argazkian txapel gorriarekin daudenak dira. Horiek erreketen izenarekin ere ezagunak ziren garai hartan. Erretratuak duda barik, 1930eko hamarkadan ateratakoa da, Gerra Zibil garaian hain zuzen ere. Dunixe Zuazabeitiaren arabera 1937. urtekoa izan daiteke.

Urte haietan, bai soldaduak eta baita karlistak ere, sei hilabetez egon ziren herrian, udaletxea dagoen tokian. Dunixek orduan 14 bat urte besterik ez zeuzkan, baina ondo gogoratzen du, batez ere soldaduak herrian izan zireneko egunak. Karlistek fama txarra zutela esan digu, baina militarrek ondo portatu zirela onartu beharra dauka Dunixek. Herri guztia-ekin lagun egin zirela gogoratzen du, neskekin batez ere! "Meriendatzen etxera eramaten zituzten herritarrek soldaduak". Karlistak berriz, herrira ez zirela asko hurbildu aipatu digu.

Karlistek Muru mendi inguruan hartu zuten orduan posizioa. Handik herri osoa begi bistan zuten, eta ondo



zaintzen zuten etsaia. Zangak edo trintxerak ere egin zituzten defendatzeko. Beste aldeko soldaduek, handik gertu, Galartzan zuten kuartela. Eta Dunixeren arabera, gauz ondo entzuten ziren bi bandoen arteko elkarrizketak. "Euren artean, hemen izan ziren garaian behintzat ez zen

iskanbilarik egon, bata bestea gorrotatuko zuen, baina ez zen gerrarik Aretxabaletan egon". Falangistak ere izan ziren, eta horien oroitzapen onik ez dauka Dunixek, Azatzara joateko ere baimena (salbokonduktoa) behar izaten zuten horien erruz. Argazkian gehienak ezezagunak

dira. Hala ere Regina Elejalde (eskuatik hasita bosgarrena) eta Kruza "Genaruena" (ezkerretik bigarrena) ezagutu ditu Dunixek.

Argazkia: Dunixe Zuazabeitia

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Iturbeneko lantokian etxebizitzak

Bizargazki hauen artean 12 urteko aldea dago bakarrik. Hala ere begi-bistakoa da horren denbora motzean nola aldatu den Andramari auzunea. Izan ere, garai baten Iturbe lantokia izenaz ezaguna zen lekuan gaur egun etxebizitzak daude. Hala ere, lantoki guztiak ez zituzten herriaren erdigunetik kendu. Bi argazkitan, oraindik hor ikus daitezke Beroa lantokia toki berean.



± 1989 Iturbe lantokia Andramari auzunearen eta Araba ibilbidearen artean zegoen. Lantokia orain hamar bat urte bota zuten.



2001 Autoek oraindik ere antzerako aparkalekua dute auzune honetan. Baina orain, horien jabeek etxebizitza dute parean eta ez lantokia.

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Lie

LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

MartiW
ERPILOTELEKONEA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

ZI

Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 14a / 60. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

Etxebizitza sozialak egiteko hitzarmena adostu du Udalak Eusko Jaurlaritzarekin

AINTZANE GARDOKI

Eskoriatzako Udalak hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin Intxaurtxueta auzoan 16 etxebizitza sozial eraikitzeko. Akordioa sinatuta, datorren urtean, uda ondorenean hasiko omen dira eraikuntza lanak egiten. Eusko Jaurlaritzak izango du ardura.

Guztira 16 etxebizitza sozial egiteko asmoa dago Eskoriatzan, eta horretarako Udalak akordio bat sinatu du Eusko Jaurlaritzarekin. "Intxaurtxueta auzoan lursaila birpartzelatu da eta udalak partzela batekin gelditu da", esaten digu Edorta Zubizarreta, Eskoriatzako alkateak, "Hamasei etxebizitza egiteko aukera ematen du lursail horrek, eta Eusko Jaurlaritzari utzi diogu partzela hori etxebizitza sozialak egin ditzan" dio Zubizarretak.



AINTZANE GARDOKI

Intxaurtxuetan kokatuko dira hamasei etxebizitza sozial

LEHENGO ETXEBIZITZEN ALBOAN

"Orain Jaurlaritzak dauka egitasmo hau aurrera bultzatzeko ardura, izan ere, guk hau horrela egitea erabaki ondoren, beraien esku gelditzen dira eginbeharreko tramitazio guztiak: bai proiektu

tua egitea, lanak konkurtsora ateratzea eta baita gero etxeak nori emango zaizkion erabakitzea ere" azaldu du alkateak.

Esan bezala udalak ez badu ere

proiektu honetan zeresan zuzenik, etxeak eraikitzen hasteko lanak datorren urteko bigarren erdialdean hasteko moduan izango direla uste dute. Intxaurtxue-

tan lehenago egin ziren etxebizitzaren alboan egingo dira etxe berriak, eta udalak egingo diren 16 etxeetatik 3 bere jabetzan hartuko ditu ordainez.

HERRITARRENHITZA/ Arantzazu Loidi

Benito, biba zu!

Eskoriatza eta gaurkotasuna gogoan hartuta, bi gaituen lapitzaren puntan lerro hauek idazteko: bata, sentimendu positiboek sortu dute nigan; bestea, berriz, herriko trafiko arazoaren ondoriozko haserre-asperdura-etsipenak. Baina lehen gaia aukeratuko dut lehenaldi honetarako, hurrengo tokatzen zaidanean ere gai izaten jarraituko du eta, zoritxarrez, trafikoak Eskoriatzan.

Oraindik ez zait pasa Benito Lertxundiren kontzertuak utzitako aho-gustu gozoa. Kontzertua bera ederra izan zen. Benitoren kanta berriak,

landuak eta egilearengandik espero daitezkeen modukoak. Eta kanta zaharrak, zer esanik ez. Propina luzea izan genuen, kantaria bera ere gustura zegoen seinale eta, beno, letrak ahaztu egiten zitzaizkiola? eta zer? Entzuleok ere han geunden,

eskatzen genituen kantak bagenekizkiela erakusteko. Nik behintzat, irten arte ez nuen sentitu jarlekuek eragindako ipurdiko mina,



"Zerbaiten inguruan bat egiten dugun sentimendua izan nuen kontzertuan"

hortik kontuak atera.

Baina ostiralekoak meritu berezia izan zuen, herriaren magia berezia sortu zuela iruditu zitzaidan: sarrerak agortuta, jendea kiroldegian sartu ezinda, kanpoko jende ugari Eskoriatzara, adin guzti-guztietako jendea entzule, ilobak eta aiton-amonak batera kantuan eta giro beroa herriaren antolatutako ekintza batean. Jendeak bazuen horrelako zerbaiten

gogoa eta gogoz erantzun zuen. Norbere eta ingurukoaren adinaz oihartu ezean, orain hamabost-hogei urteko kontzertua zela esan zitekeen. Ilusio handia, euskal giroa, zerbaiten inguruan bat egiten dugun sentimendua nagusitu zirela iruditu zitzaidan. Eta Benitoren letrak erabat indarrean daudela, denbora pasa ez balitz bezala, zoritxarrez kasu batzuetan. Bereziki ukitu ninduen "Hori ez!" latz eta urratu hark eta nahiago nuke joan zen ostiraleko giroa eta "Zenbat gera" kantaren mezua gure artean geratuko balira. Eskerrik asko Benito eta antolatzaileei.

"Guztira hamasei etxebizitza sozial egingo dira Intxaurtxueta auzoan"

"Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin adostu du udalak. Gasteiz arduratuko da egitasmoaz"

"Datorren urtean, uda pasa ondoren lanak egiten hasteko moduan izango direla uste dugu"

LABUR

Birgaitzeko lanak direla eta lekuz aldatuko da Udala

Lanak irauten duten bitartean udalaren zerbitzuak Jose Arana kaleko 13. zenbakian kokatuko dira, Auto eskola zaharrean.

Leku aldaketa abenduaren 19, 20 eta 21ean egingo da, eta azken egun honetan udal etxea itxi egingo da. 24an irekiko ditu berriro ateak baina dagoeneko kokapen berrian. Hau dela eta, Arana kalean trafikoa eten behar izango da momentu batzuetan, baina herritarrari emango zaio honen berri puntualagoa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultur Etxea	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzailea	943 71 31 36
Kiroletxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo-Eskola	943 71 54 53
Astroki?	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde-Ospital (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ELKARTASUN AFARIA

Atxorrotx Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatuta Apotzagako elkartearen.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Amuska emakume taldeak antolatuta, abenduak 17, 18 eta 19an, Olazarren elkarte-ko sukaldean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. "Gabonetako menuak" landuko dituzte.

OLAZAR JUBILATUAK

Arratsaldeko 17:00etan, txistorra jana egoitza. Ondoren, dantzaldia eta opari zozketa bazkideen artean.

AXTOKIREN AGENDA

UDAZKEN KULTURALA

Egindakoaren balorazioa egiterakoan, Takolo, Pirritx eta Porrotzek izandako arrakasta aipagarri, 1300 pertsona ikuskizunean. Bertso afarian, berriz, jende gutxi, baina giro oso ona.

GIZARTEA

Jostailuak eta haur eta gazteentzako ipuinak eta liburuak protagonista

AINTZANE GARDOKI

Aste honetan, abenduaren 12an hasi eta igandea bitartean, jostailu eta euskarazko materialaren erakusketa egongo da Kultura Etxean. Erakusketa arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Bertan, haurrentzako jostailu egokiak adinaren arabera sailkatuta egongo dira, eta adituek prestatutako azalpenak izango dituzte. Haur eta gaztetxoentzako CDak, jostailu katalogoak, jolas ordenagailuak, bideo didaktikoak, haur eta gaztetxoentzako egokiak diren web-gune interesgarriak buruzko informazioa eta liburu egokiak aukeratzeko gomendioak ere izango dira.

Erakusketa, batez ere gurasoentzako, irakasleentzako eta hezleentzako prestatuta dago, eurei dagokielako umeentzako jostailuak aukeratzeko. Baina, haurren iritzia ezagutzeko garrantzitsua denez, haurrek, jostailuekin nahiz multimedian eskainitako jolasekin olgatzeko aukera izango dute nagusi batekin lagundu-

Jostailuei buruzko hitzaldia bertan behera gelditu zen, inor ez zelako hitzaldira joan

ta joaten baldin badira.

Asteartean, bestalde, eta honekin lotuta, Txatxilipurdi elkateak hitzaldia eman behar zuen Kultura Etxean. Jostailuak ondo aukeratzeak duen garrantzia azpimarratu nahi zuten baina ez zen inor hitzaldia entzuterako joan.

HUHEZIKO Haur Liburu Mintegiak bestalde, azken 11 urteotako haur eta gazte literaturako libururik onenekin osatutako gida kaleratu du. Nerea Alzolak zuzentzen du mintegia, eta Pello Añorgarekin eta Mari Karmen Apraizekin batera egin du lana. Orain 11 urte hasi ziren haur eta gazte literaturako libururik onenen gida eskaintzen, baina diru-



AINTZANE GARDOKI

Igandea bitartean izango da jostailu erakusketa

rik ez eta, fotokopiatutako lana egiten zuten. Orain Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso dute, eta argitalpena egiteko aukera izan dute. "Jende askok lagundu du

urte hauetan zerrenda hauek egi-ten irakurle eta iritzi emaile moduan. Lan jarraituaren fruitua da argitalpen hau", esan digu Nerea Alzolak.



Sahararen aldeko kanpaina

Almen ikastolako DBHko lehenengo mailako ikasleek, Saharako umei eskolarako materiala bidaltzeko kanpaina antolatu dute.

Besteak beste *jaima* bat jarri dute ikastolan, eta diapositibak ikusi dituzte bertan. Basamortuko umeak nola bizi diren hurbilagotik ezagutu nahi izan dute, eta tentsibilizazioa izan du helburu esperientzia honek. Datorren abenduaren 19a bitartean, ikasleek, materiala erosteko dirua bilduko dute ikaskide eta gurasoen artean.

LABUR

Futbito taldea indartsu ohorezko ligan

Eskoriatzako Futbito taldea indartsu ari da Arabako Ohorezko Ligan, izan ere lehenengo postuan daude liga hasi zenetik. Larunbatean, Lomásbederatziren kontra 7 eta 6 galdu zuten. Hau izan zen 12 partidu jokatu ondoren galdu duten lehengo partidua. Eta asteburuan ere ez dute lan erreza, larunbatean arratsaldeko 16:00etan, 2. postuan dagoen Alegria hartuko baitute. Puntuz berdinduta badaude sailkapenean, gol *averagea* dute herrikoek alde.

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA



MIRENTXU
TABERNA


Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67



bedardenda

Tfnoa.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

ESKORIATZA



• Pintura orokorrean
• Fatxaden pintatzea
• Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz.
ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92.
Sakelakoa: 605 772 769

Herrian denda zabaltzeko asmoa du Udalak

Urteetan izan zuen Gatzagak bere denda, baina egun ez dago dendarik herrian. "Zerbitzu hori eskaini beharra diogu herritarri", dio Joxerra Agirreurreta alkateak, "baina ez da bat ere erraza. Denda guztiz egokitua daukagu. Pertsona bat urtebetez eta egun osoz izateko ere, baldintza guztiak betetzeko moduan gaude, baina ezin da horra datorren pertsona zortzi orduz denda batean gora begira egon. Irtenbideak bestelakoa izan behar du, eta hori asmatu guran ari gara udaletxetik"

Hainbat asmo eta ideia ari dira lantzen Udaleko arduradunak. "Negozio Unitate baten barruan kokatu behar du dendak,

bestela, aurreko aldietan bezala, kale egingo du proiektuak", azaldu digu Agirreurreta. Museorekin eta Jakion enpresarekin ere hartu-emanetan ari dira, egitasmo horietan dendak lekuri ote duen edo ez aztertzeke. Zailtasunak ez dira gutxi alkatearen esanetan, "errentagarritasuna aurkitu behar zaio lehenik, eta horretarako, lanak ilusionatuko duen pertsona konprometitua behar da, eta gainera jendea erakartzen jakin behar duena. Herrian ez dugu ez egunkari, ez esne eta ez ogirik. Kanpotik bost okin etortzen dira egunero, horrek zer bait esan nahi du. Horrekin jabetu eta lanean hasiko den norbaiten beharra dugu"



Udalak dituen lokaletan kokatuko da denda

HURRETIK/ Periko Orobengoa · GURELeko presidentea

"Egiten duenak sartzen du hanka, egiten ez duenak ezin hankarik sartu inoiz"

Periko Orobengoa bi urtez egon da GUREL, Gatzagako Guraso Elkarteako juntan. Orain berriz, kargua utzi berri du. Egindakoaren balorazioa zein nolakoa izan den jaso nahi izan diogu.

Kontentu egindako lanarekin?

Orokorrean bai, beti jasotzen dira kritikak, baina gero eta argiago daukat: egiten duenak sartzen du hanka, egiten ez duenak inoiz ez.

Zer helbururekin sortu zen GUREL?

Hitz gutxitan, umeentzat aisialdia euskaraz bultzatzeko eta taldeko harremanak indartzeko.

GUREL baino lehenago ere jendea ez zegoen herrian lo.

87an Garro Kultura Etxea inauguratu zen, eta herriko gazteek hartu zituzten bere gain umeen ekintzak eta ludotekaren ardura. Txatxipurdi ere egon zen bi urtez, eta azkenik, herriko gurasoek kargu hartu behar genuela pentsatu genuen.

Zeintzu dira betebeharr nagusiak?

Urte osoan ludoteka eta liburutegian egiten diren ekintzak antolatzea, hitzaldiak barne; irteera pare bat egitea, eta gabonetako programazioa eta, udan, udalekuak antolatzea.

Herri txiki batean lan hauek egitea zailagoa ala errazagoa da?

Gurasoen inplikazioak handiago izan behar du, momentu



askotan adibidez, desplazamenduak egin behar izaten dira; edo piznara, edo zinera edo bainu bat hartzen Landara... txandak egin behar izaten dira, eta ez da erraza izaten, ez.

Parte-hartzeari buruz zer esan?

Oso handia da. Herriko ume gehienek hartzen dute parte. Ludotekan egunak bereizi ditugu, txikitxoek astelehene eta asteazkenetan etortzen dira, eta zortzi urtetik gorakoak astearte eta ostegunetan. Ostiraletan denentzako daude ateak zabalik.

Nagusienak ez dira asko egiten baina ludotekan.

Bai, arazo bat daukagu eskolaz kanpoko ekintzekin. Horri irtenbidea aurkitu behar zaio, baina ez da erraza.

Ludotekan jolas egiteaz aparte beste proiektu batzuk ere bultzatzen dira.

Toponimia proiektua adibidez. Umeek ez dituzte lehenengo leku izenak ezagutzen, horregatik, Euskaltzaindiaren laguntzarekin, herriko hainbat lekuren eta baserri guztien izenak landu ditugu. Laster, leku bakoitzari bere plaka jarriko diogu. Eta beste proiektu pare bat ere baditugu buruan.

Hemen ere, beste leku batzuetan bezala, guraso bileretan da apenas aitarik izaten.

Egia da. Niri neuri ere emazteak pasa zidan juntan parte hartzeko gonbita. Eta emakume artean ondo moldatu naiz.

Eta orain?

Laguntzen jarraitzeko prest, e

FOTOZAHARRA



Eskola inauguratu zenekoa

Iazko urtean, txistu eta dandolinaren soinuekin eta Takolo pailazoaren abestiekin zabaldu zituen Gatzagako eskolak berriro ere ateak.

Baina izan ziren beste garai batzuk. Argazkia, 1964 urtekoa da, eskola inauguratu zenekoa; abadea, Espainiako Hezkuntza arduraduna eta guardia zibila ez ziren herrian falta izan. Eskola inauguratu ondoren, orduan ere, orain bezala, bapoz bazkalduta amaitu zuten eguna.

LABUR


Pilota txapelketa hirugarren jardunaldian

Pasa den asteburuan, zubia zela eta, bi partidu jokatu ziren soilik. Emaitzak, Ina eta Javier 22, Salva eta Joxerra 13 eta Milek eta Txarrantxa 22. Iñaki eta Agarre, 17. Falta direnak asteen zehar jokatu dira.

Larunbatean, bestalde arratsaldeko 17:00etatik aurrera ondoko bikoteak aurtuko dira: Inusti-Patas eta Matxain Asier, Beloki-Unai eta Jon Aritz, Iñaki-Agarre eta Ina Javier, Salva-Joxerra eta Goio-Oñate, Artabilla-Jon eta Txarrantxa-Mikel. Lehia gogorra iragartzen omen da.




Argazkia: Galactza-Dorretxea, Manolo-Urtubi



EGUZZKIGRAF

inprimategia

Gabonak Zoriontsu
eta bakean
pasa ditzagun.



Arte Berri On!

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941
info@eguzkigraf.com



i rudi

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA

Zure estiloa zein den badakigu:
ile motza, luzea, permanentea,
ile bildua... Ausart zaitetz luzapenak egitera edo
udazken-negu denboraldirako koloreekin.
Zatoz **IRUDI**ra. Modan jarriko zaitugu.

Ausart zaitetz!

Errekabarren, 20 b. ARETXABALETA. Tel.: 943 79 80 90

Errege eguneko loteria oparitzen dugu!

LEIBAR
ARRINDEGIK
Mitarte, 1 • Tel.: 943 771379
Loramendi, 1 • Tel.: 943 791833

ERRASTI
Kioskoa
Durana, 19 • Tel.: 943 799876

GEMES
EDERTZE ARETOA
Durana, 40
Tel.: 943 799918

Hargi plaza 6
Tel. 658 758 012
Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTROA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

ERROGERIA
MERTZERIA
LEINTZ
Errekararren, 3 • Tel.: (dondakoa) 943 79 78 63
(etxekoa) 943 79 06 84

IBARRA
ESTANKOAK
PRENTSA
IKASMATERIALA
Bizkaia, 3 • Tel.: 943 792377

Maritxu
Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

JAN
HARATEGIA
Loramendi, 1 • Tel.: 943 79 71 69

MartiW
Mitarte, 16 • Tel.: 943 79 01 72

FARMA
BIZI
Loramendi, 8
Tel.-Faxa: 943 771818

BEHUKERIA
MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA
BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea. Eliza aurrealdean
Tel.: 943 771357

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia
IMANOL JANARI
DENDA
Gorbea kalea. • Tel.: 943 79 05 83

ALBOKA
MODA JOVEN
Durana, 36 • Tel.: 943 771610

ELECTRONICA
RITZORROTZ
• Autentikoa eta mantentzen dena
• Instalazio elektrikoak
• Aurrikuntza, antena kolektiboak eta parabolikoak
• Salonerria, konponketak TV, AUDIO, VIDEO
• Suteleku digitalak eta kanalak
Otalora, 14 • Tel.-Fax: 943 791610

FLORISTERIA
NERIAN
LORADENDA
Tel.: 943 79 70 66

ARTAGUI
- artegintza.
- artesantia.
CENTRO
COMERCIAL
LEZAMA, 14
Tel. 943 770792

ASENSIO
JANTZIDENDA
Mitarte, 12 • Tel.: 943 79 10 72

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea
Angelines
AUTOZERBITZUA
Mitarte, 16 • Tel.: 943 79 61 42

ARETXABAETA
Fontanerria
ITURGINTZA
Durana, 16 • Tel.: 943 79 17 53

PAPERDENDA
LIBRERIA
LOTERIA
IBER
Otalora, 2
Tel.: 943 79 79 24

Oinetakoak
Peltak
Sapatuak
gorrikoak
Zubia
Mitarte, 14
943 79 16 00



Errege eguneko loteria oparitzen dugu!

GABON ZORIONTSUAK IGARO DITZAZUELA DENOK!



Lasa
Mirian Mantasa
Masaje terapeutikoa
Posturen azterketa eta egokitzan diplomaturia
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 • Tel.: 943 770434

JOSU
Urdaitegia
Gozotegia
Kroasantegia
Janari prestatuak
Mitarte, 1 • Tel.: 943 77 03 08

Larrad
Itzapindegia eta edertze aretoa
• ESTENSIOAK
• MIKROPIGMENTAZIOA
• DEPLAZIO ELEKTRIKOA
Loramendi, 11 • Tel.: 943 799079

Etxabe
harategia
Durana, 4 • Tel.: 943 79 16 61

REGONDO
OPTIKA
Loramendi, 10 • Tel.: 943 79 98 21

Gertu
Jukien Elaborazio
eta Salmenta
Elaborazioa y
Venta de Comida
ESPECIALIDAD
EN BACALAO
Mitarte, 10 • Tel.: 943 770612

HAURRIK
Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86

Fruteria
Errekabarren
943 799643
Frutadenda

LENIZ
liburudenda
Herriko Plaza, 10
Tel.: 943 79 75 53

Irudi
ILEAPAINKETA
PELLQUERIA MIXTA
Errekabarren, 20 h. • Tel. 943 798090

Jauregi okindegia
Otalora, 17
Tel.: 943 79 57 47

TXILARRA
ELIKADURA BEREZIA
Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15
Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28

MARI KARMEN
oinetakoak
KONPONKETAK
Errekabarren • Tel.: 943 79 59 85

XUME
Teladenda
Errekabarren, 14 • Tel.: 943 79 11 19

IRIARTE
Umeen denda
eta lentzeria
Durana, 8 • Tel.: 943 79 10 96

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

HERRASTI AKETIA ETXEA
CAFES
• Brasilera
Astar kalea, 7 • Tel. 943 79 32 83

LORAMENDI, 10
TEL.: 943 77 01 26
20550 ARETXABAETA

Errege eguneko loteria oparitzen dugu!